

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Bajo la sombra del miedo.

Dictadura.

Stomp.

Iraupena: 15'13".

Prezioa: biniloak 9 euro,
kaseteak: 3 euro.

Amorrua eta freskotasuna dosi txikian

ZARAUTZ-LASARTEKO talde honek freskotasuna ekarri dio Euskal Herriko punk eta hardcore eszenari. Eskola zaharreko punka, abiadura eta aspaldian ikusten ez genuen amorru eta bat-batekotasun naturala, hain zuzen ere. Partaideak Hell Division, Taosa, Pariak bail, Afonia, Iñor ez, Street Alarm eta beste-lakoetan ibiliak dira eta eskarmentua dute, baita bizipenetan ere. Ziztu bizian jaurtitako kantu hauetan gogora ekarri dizkirate AEBetako lehen punk-hard-

corea, La Perrera, Upright Citizens eta 1980ko hamarkadako hemengo punk gordinena. Beraiek, ordea, hurbilago ikusten dituzte azken hauek: Regulations, Citizens Patrol, The Vicious, Government Warning eta Direct Control, besteak beste. Diskoa 12 hatz beteko biniloan eta kasetean argitaratu dute, oso modu dotorean eta hiru disko azal desberdinekin.

<http://stomprecords.blogspot.com.es>

Dictadura

«Gutako batzuek ez diogu inoiz kaseteak entzuteari utzi, gustuko dugu formatua»

Biniloan eta kasetean argitaratu duzue lana. Berpiztu egin da kasetea?

Kasetean 100 kopia atera ditugu eta bi astetan guztiak saldu dira; gehiago aterako ditugu. Gutako batzuek ez diogu inoiz kaseteak entzuteari utzi, gustuko dugu formatua. Berpizkundera batez ere HC/punkean ematen ari da. Kantu bat lagunei kaseteak grabatzeari buruzkoa da.

Diskoak sufrimendua, amorrua eta borroka aipatzen ditu. Autobiografikoa dirudi. Barrutik asko atera duzue?

Kantu batzuek hiru urte dituzte eta guztiak etxean eta lokalean lantzen ditugu. Hainbeste buelta emanda, ezinbestekoa da buruan dituzun gauzekin nahastea. Hitzak Lopek (gitarra) eta Juanmak (ahotsa) idatzi dituzte. Hitzek punka, inguruko kaka guztia edota kontu pertsonalak lantzen dituzte, orain ingelesa albo-



ratu eta kantu berriak politikoagoak izango dira.

20 minutuko kontzertuak egiten dituzue.

Euskal Herrian taldeek denbora gehiegi jotzen dute. Horregatik, batek 20 minutu jotzen baditu, jendea harrituta gelditzen da eta gehiago nahi dute. Baina, egia esateko, hobe jendea gogoz uztea aspertzea baino.

"This is the reality". Modak, jarrerak eta halako tontakeriek ahaztuarazi

digute zergatik gauden hemen?

Modak joan eta etorri egiten dira, eta batez ere hirietan ematen dira. Zorionez Euskal Herrian jendeak ez die halako garrantzia ematen; hemengo autentikoa goa da.

Zer gertatzen da Zarautz aldean? Hardcore-punk giro sendoa dago.

Zarauzko Gaztetxean jende asko gogor ari da lanean DIY (zeuk egizu) punkaren alde eta horri esker astero mundu osoko taldeen kontzertuak ikusi ahal dira. Ezin ditugu ahaztu Geta-riako Gaztetxea eta Trintxerpeko Mogambo ere.

"Beldurraren gerizpean".

Gure gurasoek diktadura bizi izan zuten, baina gaur egungo itzaletako asko antzekoak dira. Ez dira ikusten, baina poliki-poliki sentimendu gabeko pertsona egin gaituzte. ■

